

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIAKO UDALA

2021eko urtarrilaren 22ko Alkatetzaren 30 zk.dun Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, Zigoitiko udalerriko kultura-, kirol- eta gizarte-jardueren antolamendua norgehiagoka prozeduraren bidez diruz laguntzeko deialdia egin zen 2021erako

BDNS(Identif.): 545856

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/545856>)

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke:

– Legez eraturako eta Zigoitiko Elkartearen Udal Erregistroan inskribaturako irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuak (hala nola kultura-, kirol- eta/edo gizarte-izaerako elkarteak, taldeak, fundazioak).

– Era berean, diru-laguntza hauen onuradun izan ahalko dira Zigoitiko udalerrian jarduten duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak, egoitza soziala udalerritik kanpo ez badute ere. Erakunde horiei Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzeko eskatuko zaie.

– Zigoitiko udalerriko kontzejtuak.

Bigarrena. Helburua

Diru-laguntzaren helburua Zigoitiko udalerrian egiten diren kultura-, kirol- eta gizarte-jarduerak antolatzearen ondoriozko gastuak finantzatzen laguntzea da. Diruz lagundu ahali zango dira, era berean, beren izaeratik eta behar bezala arrazoituta udalerritik kanpo egin beharrekoa ere.

Diruz lagunduko dira kultura, euskara, aisia eta kirol arloetako jarduerak, eta lehentasuna emango zaie honako programa hauei:

– Zigoitia udalerrian gizarte ongizatea sustatzen dutenak.

– Euskararen erabilera bultzatzen eta laguntzen dutenak.

– Herritarren parte-hartzea bultzatzen dutenak.

– Udalerria ezagutaraztea.

– Kultura eta kirola, sustatzen dutenak; oro har, eta bertakoa, bereziki.

– Berdintasuna eta genero-rolen haustura bermatzen dituzten eta egoera ahulean edo bazterketa-arriskuan dauden kolektiboaren parte-hartzea bermatzen duten programak edo ekintzak sustatzen dituztenak.

– Bertako tradizioak berreskuratzen laguntzen dutenak.

– Ingurumenarekiko sentsibilizazioa sustatzen dutenak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Diru-laguntza horiek emateko oinarri arautzaileak 2020ko irailaren 28an onartutako eta 2020ko abenduaren 9ko ALHAOn (140. zk.) argitaratutako kultura, kirol eta gizarte jarduerak antolatzeke diru-laguntzak emateko ordenantza espezifikoan daude jasota.

Diru-laguntza horiek emateko prozedura norgehiagoka-erregimenean egingo da, aurkeztutako eskabideak erkatuz, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera lehen-tasun-hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuz baloraziorik handiena lortu dutenak esleituko dira, hurrengo puntuan ezarritako mugarekin.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskabideen ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 334.481.001 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio, "Jarduera soziokulturaletarako diru-laguntza" kontzeptuan, eta 341.481.000 aurrekontu-aplikazioari, 2021erako aurrekontuko "kirol-jardueretarako diru-laguntza" kontzeptuan.

Deitu beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoa 334.481.001 aurrekontu-aplikazioan eta 341.481.000 aurrekontu-aplikazioan indarrean dagoen aurrekontu-kreditua izango da, 2021eko ekitaldiko aurrekontuarekin bat etorritik.

Udalak diruz lagundu daitekeen programaren kostu osoaren ehuneko 80 eman ahal izango du gehienez.

Hala ere, udal honek izapidetze berezia egin ahal izango du udalaren interes bereziko programa jakin batzuetarako, eta programaren kostuaren ondoriozko defizitaren ehuneko 100era iritsi ahal izango da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak eta urteko programetarako deialdiaren zazpigarren puntuan aipatzen diren agiriak aurkezteko gehieneko epea 2021eko martxoaren 29a izango da.

Jarduera puntualetarako eskabideak aurkezteko gehieneko epea programatutako jarduera hasi baino hilabete lehenago izango da, eta betiere 2021eko azaroaren 1a baino lehen.

Eskabidearekin batera ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

Udalak emandako eskabide ofiziala.

Inprimaki ofiziala. Programa bakoitzeko inprimaki bat bete beharko da (gehienez lau programa).

Ordenantzaren 8. artikuluan diru-laguntza emateko zehaztutako irizpideen egiaztagiria.

Egoitza soziala Zigoitiko udalerritik kanpo duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek kasuan bakarrik, estatutuen fotokopia eta legez eraturak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeek Erregistroan inskribaturak dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa. Baldintza horretatik salbuetsita daude aurreko deialdietan aurkeztu duten erakundeak, estatutuetan aldaketaren bat egin ez bada behintzat.

Seigarrena. Justifikazioa

Diru-laguntza jaso duten erakundeek 2022ko urtarrilaren 31ra arteko epea izango dute, zuriaketarako dokumentazioa aurkezteko:

— Memoria-likidazioa, bertan ondorengo datuak jasota:

Jarduera: helburuen deskribapena eta ebaluazioa, erabilitako giza-baliabideak eta baliabide materialak, egin den lekua, denboralizazioa (data, orduak).

Hala badagokio, genero-berdintasuna lortzeko elburuaren edukiaren azterketa eta ebaluazioa.

Hala badagokio, jarduera euskaraz garatu izanaren egiaztagiria.

Hala badagokio, udal programetan parte hartu izana ziurtatzen duen agiria.

Parte-hartzaile kopuruaren egiaztagiria, sexuaren arabera bereizia.

Likidazio ekonomikoa: gastuak eta sarrerak zehaztuta.

Programan parte hartzea sustatzeko egindako zabalkunde publikoa erakusten duen dokumentazioa.

Ez dira diruz lagungarri izango, programaren eskaintzaren publizitatea egiaztatzen ez duten publiko orokorrari zuzendutako programak.

Diruz lagundutako gastuen ziurtagiriak: fakturen eta ordainagirien kopiak.

Programen aleak, hala badagokio. Ale horietan Zigoitiko Udalaren babesletza jaso dela aipatu beharko da.

Ondategin, 2021eko urtarrilaren 25a

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA